

Euskaltzaindia'k onetzaz auxe erababi du: Lantxo oyek orialdetuta betoz, liburutiño baten antzera, ta orialde bete bategatik, auferantzean egileai 25 peseta emango zaye. Lan oyek ordea, berak jayo edo bizi diran erietatik egin dezazkiteke, Bilboratu beartu gabe.

Ta beste gai batzuek urango batzaraldirako lagata, oiturazko otoitzaz amai eman zayo batzaraldi oni.

Donosti'n, Aldundi - Jauregian, 1921'ko Lotazila'ren 30'an.

Aureko batzaragirian aipatu diran euskaltzain jaun berak, bildu ziran; urgazlerik batez.

1. Eleizalde jaunak, atzoko batzaraldian, Gerñika'ko *Congreso Vasco* dala bide, egotsi zitzayon txostentxo, irakuri du. Bere aburuz, auxe izan diteke Euskaltzaindia'ren egikizuna: *Conferencias generales*.—Dos extranjeros y Menéndez Pidal.—*Lecciones: a) Fonética experimental* (Navarro Tomas), *b) fonética gramatical* (Gavel), *c) dialectología*, *d) el verbo*, *e) literaturas clásica y moderna*.—Secciones: *Enseñanza del euskera*.—*Enseñanza en euskera (grados, procedimientos, textos)*.—*Fomento del euskera en las clases cultas*.—*El gran diccionario euskérico*.—*El euskera y la Iglesia*.—*El euskera y el Estado*.—*Toponomástica vasca*.

Euskaltzaindia'k bere egikizunen eredutzat txostentxo auxe artu du.

2. Euskaltzaindiak urteburuan izan dituen eralki-yak irakurri ditu diruzain Altube jaunak, ta guzi-guzi-yak zuzenetsi dituzte beste euskaltzainak.

Datoren urterako dirubidea auxe da:

Eusko-lkaskuntza'tik. . .	3.000	peseta
Bilbo'ko Udala'tik . . .	2.500	»
Bizkai'ko Aldundi'tik . . .	15.000	»
Gipuzkoa'ko » . . .	5.000	»
Donosti'ko Udala'tik. . .	1.000	»
Napároa'ko Aldundi'tik. . .	3.000	»

Guzira. . . . 29.500 peseta

Liburutegian 1.000 peseta eralkiko dira, ez 2.000 len erabaki bezela.

3. Lieshonain jaunaren eskutitz batek dasa, ur-gazlearen izentza artu duela, ta eskafikasko.

4. Jesus'en Lagundi'ko Aita *Provincial'* ak eskuti-tzaz adirasten du: Aita Joakin Azpiazu, ezin izan ditekeala *Euskera* Aldirokoaren zuzentzale Euskal-tzaindia'k nai bezela; beste arazo ta lan ga'rantziyak Lagundia'n dauzkalako.

5. Manuel Irujo jaunaren eskutitzak, Napáro'ko Aldundia'gandik Euskaltzaindia'rentzat sorozpidea lo'rtzeko alegin egingo duela, diyo.

6. *Edesti Deuna* deitzen dan liburoñoa Euskal-tzaindia'ri Aita Zabala - Aranak aurkestatzen diyo, ontzat eman-da ale batzuek erozi ditzan. Aita Olabi-de'ri egotzi zayo liburu onen iritziya.

Ta beste erizkizunik ez da, oiturazko otoitzaz amai eman zayo batzaraldi oni.